# URKIOLA LANDA GARAPENERAKO ALKARTEAREN EZOHIKO BATZAR OROKORRAREN BILERA-AGIRIA

EGUNA: 2020eko maiatzaren 22a

HASTEKO ORDUA: 10:50, bigarren deialdian.

AMAITZEKO ORDUA: 11:00

LEKUA: Bideokonferentziaz.

ETORRITAKOAK:

1. Abadiñoko Udala
2. Amorebieta-Etxanoko Udala
3. Atxondoko Udala
4. Berrizko Udala
5. Durangoko Udala
6. Elorrioko Udala
7. Garaiko Udala
8. Iurretako Udala
9. Izurtzako Udala
10. Mallabiko Udala
11. Mañariko Udala
12. Zaldibarko Udala
13. Bizkaiko Basogintza Elkartea
14. Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna (EHNE)
15. Gerediaga Elkartea
16. Nekatur

AZTERGAIEN ZERRENDA:

Behin behineko gairik ez dagoala holan gelditu da:

1. Agurra.

2 Deialdiaren arrazoiak azaldu.

3 Alkartearen Estatutuak barriztatzeko proposamena.

4 Itaun-eskaerak.

Juan Mari Totorikak ezohiko batzar orokorraren deialdiaren arrazoiak azaldu dauz. 2019an egindako ezohiko Batzar Orokorrean onartu ziran estatutuak ez ebazan ontzat emon Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erroldak arrazoi honekaitik:

- Estatutuetan aginte organoetan ezin dala jaso udalak gehiengo osoa eukitea.
- Udalak ez diran kideen botoen banaketa be araututa jaso behar da

Hau dala eta baldintza bi honek kontuan hartuta Elkarteen Erroldagaz kontsulta egin ondoren, eta eurekaz adostuta, deialdiagaz batera estatutuen zirriborroa kide guztiei bialdu jaken. Batzarrera etorritakoei Aldaketa nabarmenenak azaldu jakez.

Estatutu barriak onartzeko bozketan aho batez onartzen dira, akta honeri kopia bat erantsi jakola.

Kideei helarazo jaken eta Batzarrean azaldutako estatutuen bertsio bakarra erderaz egon dala eta, Elorrioko Udalaren ordezkariak euskal hiztunen eskubideak kontuan hartzeko eskatu ondoren Elkarteen Erroldara bertsio bakarra euskerazkoa bialtzea onartu da.

Eta beste gairik ez danez, bilera amaitutzat jo da.

IDAZKARIA

30568833Q ERRAMUN OSA (R: P4804700E)

Firmado digitalmente por 30568833Q ERRAMUN OSA (R: P4804700E)
Fecha: 2020.07.09 12:03:25 +02'00'

O.E. LEHENDAKARIA

72487005K AINARA OTXOTORENA (R: P4807000G)

Firmado digitalmente por 72487005K AINARA OTXOTORENA (R: P4807000G)
Fecha: 2020.06.24 08:19:01 +02'00'